

JESUSEN TERESA SANTEARI

AMODIOZKO KANTU BAT.



(ENE ADISKIDE MAITE IÑARRA-KO ON MIGEL ANTONIO-RI)

Españatarra nazalako ni, nago zerura,
Neure biotz au ordu onetan jasoagaz;
Españatar dan santa bat zerren nukean gura,
Alabau gaurko kantuagaz.

Zabaltzen doa zerua egun pozez betea,
Alako santa arrigarria danarena;
¡Nok leukekean berberak eukan lako lumea!
¡Nok amodio Jesusena!

Bai, Karmeloko lirio zuri parebagea,
Kantau daizudan zure egun au jagitean;
Jarri nagizu beian ichirik soru tristea,
Siongo mendi ederrean.

Igoa zara Esposoaren abiara zu,
Uso sotilla, emengo bullai urrindurik,
Goyan dozuzan urruetakaz gaur nadin batu,
Soñutai on bat ¡ai! baneu nik!

Ze pozik daben azuzenazko lora salletan,
Jaunak girotzen zu lako lora eskertsua;
Amodiozko aiše bigunaz zerren goyetan,
Arnasageia dan gozua.

Ulle-kopeten¹ albeni baten zenduan jarri,
 Katigaturik Esposoaren arimea;
 Zure begiak jakozalako ispillugarri,
 Nun bera nai dan ikustea.

Lora lurrunez eztitutako urruetakaz,
 Deitutean zuk Esposo laztangarriari;
 Zentzuna galdu baleu logeche izcho leunakaz,
 Asiten jatzu berbaz zeuri:

Autortu-idazu ¿norena zara neskatillea?
 —Galai ederra, ni naz Teresa Jesusena—
 —¡O! uso zuri neure ortuko loren lorea
 Ni nozu Jesus Teresena.

—¡A! Sunamitis, itzuli-dazuz begi lau lauok,
 Zizpuruz urtzen zagozan ene tortolea,
 Zenbat anpulu geiago daben botaten eurok,
 Nayago zaitut ikustea.

—Nire biotz au kutun laztana, zauritu dozu,
 Begiratute zuk egiñiko aiñ samurraz,
 Urre gorrizko ulle orrekaz zuk lotu nozu,
 Preso naukazu asko guraz.

—¡Ai! Esposoa esku orregaz eidazu batu,
 Nire esku au gaur deusudana eskiñiten;
 ¡Ai ene bada! arimacho au jat arikatu,
 Zure amorez noa illten.

Ain batzandute atsegintsu ta arimazkoan,
 Enkantuz bertan Esposa zan lo geratu,
 ¿Zeiñ maitetzallek amodio aiñ garbiz besoan,
 Iñor egiñ dau au lez batu?

Taupaka dagoz bien biotzak soñu batean,
 Amodiozko besoz sendaro amarraurik;

(1) Ulle-kopetak=trenzas.

Alako berbaz bien arimak euren artean,
Bat egiñago geraturik.

Batak diñotsa: eutsi urratu dozun biotz au,
Eutsi neure au, au da besteak diñotsana;
Zauritu-idazu zeure amorez geyago berau,
Zauri bat oso jarri Jauna.

Au ikustean uts urdinean jatsiaz bera,
Dator serafin ego zabal bat Teresana;
Nok jaurtigiten deutsan saeta bat biotzera,
Eta irago bereala.

Orduan jakoz amodiozko errekak asten,
Orduan eldu ill ez dakion Esposoak;
Orduanche da lirio odol gorritan nasten,
Orduko penak ize gozoak!...

Maitetzallea samurtuten da, bai eta jantzi,
Egiten deutsa larros ederdun giraldea;
Ichasoari lanbro gozoa eutsan erantzi,
Otzarotzeko Esposa.

Esmeraldazko laranja eta sagar zugatzak,
Azukarezko ale urtsu ta umantuak;
Eskiñiteko euren besanga aiñ aberatsak,
Lurrera daukez makurtuak.

Lora guztiak inguruz dabe esitzen dana,
Dosel kerizpe-garri eder bat egiñagaz;
Esposearen arima eta gorputzagana,
Lengo zentzunak biurtuaz.

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

Ochandion, 1890-ko Santa Teresa egunean.

